

zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

EUSKERAREN SERBITZUA

NON ZER

- BIZKAIKO AIDEPORTUA
Iñaki Bilbao 3 garrenean
- EUSKARA, GALZORIAN OPE
BENETAN?
Imanol Laspiur 5 garrenean
- ELIZ ETA ERRIKO SEME
J. Arostegi 7 garrenean
- GAZTEIZ-ko JAIK 9-16 garrenetan

Arabako Diputazioak Euskeraren Alde

Uztailaren hamairuan Arabako Foru Diputazioaren lehendakaria den Lejarreta jaunak agiri garrantzitsu bat azaldu zuen, eta ontzat eman zuten beste diputaduek. Agiri horren bidez euskeraren irakaskintzarako Serbitzua sortu da, Foru Diputazio organigramaren barnean. Hona hemen Diputazioaren lehendakariak proposatu eta onartu zena, sei puntutan banatuta.


1.—“Arabako Foru Diputazioak “Euskeraren Serbitzua” izeneko erakundea sortuko du. Eskola-aurreko eta oinarrizko hezibide osoa (E.G.B. delakoa) mailetan, Heziketa Lege Berriaren 14 eta 17 artikuluetan agertzen denez, euskeraren irakaskintza izango da Serbitzu honen xedea, nahiz euskaldun haurtxoaren nortasunaren debelopamen armoniko baten bila, nahiz euskera ez dakien umeak eta ikasi nahi duena, has dedin euskeraz.

2.—Zientzi eta Hezi Ministeritzaren legeak arauaz, Serbitzu honek prestatuko ditu euskera irakasteke metodoak, liburuak eta lanbideak. Horrez gainera, ikastaro berezi batzuen bidez irakasleen heziketa ere zainduko du “Euskeraren Serbitzua”-k.

3.—Serbitzu hau Arabako Foru Diputazioari atxikia izango da 1955.ngo Ekainaren 17-ren Araudiak eskatzen duenez; Administrakuntza Batzorde bat eta Arduradun bat edukiko ditu erakunde berri honek.

4.—Bederatzi bazkidek osatuko dute Administrakuntza Batzordea, bost diputaduk (Arabako Foru Diputazioak izendatzea eginez) eta beste lau hauek: Zientzi eta Hezi Ministeritzaren Ordezkariek izendatzen duen E.G.B. delako inspektore bat, Arabako Nazio Ikastetxe baten Zuzendaria, Aramaio alkatea eta bi hizkuntza dakizkien irakasle bat (azkeneko hau Diputazioak izendatuta). Arabako Foru Diputazioaren lehendakaria edo bere ordezkarria izango da Batzorde honen burua.

5.—Eskola-aurreko bi unidade Aramaion eraikitzeko Serbitzu honek lekuak Aramaio Aintzamentuari eskatuko dizkio, eta gauza bera Gasteizen egiteko Zientzi eta Hezi Ministeritzari eskatu.



6.—“Servicios de las Corporaciones Locales” Araudiaren 76 artikulua ahanzi gabe, premiatasunagaitik, eta datorren kursoan eginkizunak hastearren, erabaki hauek abiatzeko, behar diren urratsak egingo ditu Diputazioaren lehendakariak, oraingoz Kultura Batzordeak duen dirutzaren bidez”.

Ikus dezakezuen, legeko tresna interesant eta zabal bat bezala agertzen zaigu sortutako Serbitzu hau. Bainan, noraino joan nahi du Arabako Diputazioak? Noraino lan egiteko prest da, egitan, Arabako Foru Diputazioa? Hemen datza gure eztabaida eta aldi berean gure itzaropena.

Gasteizen, Probentzi-Jauregian, 1973.ngo Uztailaren

13.an.

EZKIBEL

Gure Leihatilatik

BERTSOLARIAK

Igaro berriak dira Doneztebe, Almandoz, Erratzu eta Arizkongo festak. Arizkundarrek Sanjuanak, Almandoztarrek Besta Berri eta Erratzu eta Doneztebek Sanpedroak.

Izan dute ikuskizun ederrik: peiotariak, dantzariak, aizkolariak, soinulariak, sokatira, ahari-jokoa, bertsolariak.

Erratzun eta Donezteben izan dira bertsolariak. Xalbador eta Mattin Erratzun. Agirre eta Lazkano Donezteben. Jende asko bildu zuten bertsolariak.

Ona Mattin eta Xalbadorren bertso batzuk. Xalbador aita eta Mattin semea duzu. Askotan gertatzen dena gertatzen da bertsoetan ere. Aitak dirua egin eta semeak jan.

Xalbador:

Semea zer den ikasteko nik honekin izan dut jasta, aurrerat doa bere hartan ta nik ezin eman arrasta; kusi guziak erosi behar dena dantza eta beste, gure etxeke modua! U da nik egin da hunek gasta.

Mattin:

Horra nola den jende maitiak zahar horien gradua, beste gauzarik ez dute maite bakar-bakarrik dirua, gazteek berriz ez dute nahi, zahar hoienguek dirua, diruarekin nahiago dugu guk kurritu mundua.

Xalbador:

Bai gastatzaile segurrak dira bainan ez langile finak, aita ta seme asko ikusten dira egun ezberdinak, diruarentzat errespéto ez goza beren atseginak, berek eginik ez daukate ta gastatu bestek eginak.

Mattin:

Nik aspalditik kurritzen ditut zahar horien etxeak, eta berdinak ikusten ditut batzuek eta bertzeak, diru iteko hortxe dagozi gehienak erdi goseak, bertzela bizi nahiak dira gaurko eguneko gazteak.

Xalbador:

Gaurko gazteak urguluz bete ari direla abiltzen mundu guziak ikusten ditu zer mudutan derabiltzen gasta bakarrik eta nor kurritu ta ez baduzue biltzen, zure semeak gostako zaio zu bezala erabiltzen.

Mattin:

Aita maitea zure erranik nik ez dut nahi sinetsi, eta hortarako nabila beti zure erranetik ihesi, baserri ona dauka eta maxina herriak erosi, zuk baino aiso lana eginez semiak nahi baitu bizi.

Xalbador:

Guk ere lehen landu ditugu pentzeak eta alorrak, ta egun ez daukagu damurik ibilirik lan gogorak, bainan zuek hor asmo horrekin gehienetan moxkorak, ta gero zeinek pagatukotu tresnetan zuk egin zorrak?

Mattin:

Behin ere enaiz akort ibiltzen ni hoietan aitarekin,

hunek dirurik ez balin badu berak ez daki zer egin, semia ezta batere lotsa tresnan egin zorrakin tresna hura pagaturen du beraikin ein lanarekin.

Xalbador:

Zenbait gisetan lan egitea ez genduke guk makurrik, baina semeak ez du ikusten gaur beste hilde laburrik, diozu, "tresnak erosituz ta biziaz gira gu urrik"! bainak berak ez du nahi unkitu ez traktor ta ez aitzurrik.

Mattin:

Zuk enauzula ni konprenitzen haxe da gure makurra, gaurko gaztiak maite baititu motorra eta trakturra, hau berriz beti hementxe dago dirudun gogo-laburra, nik sasira botako ditut gaur sega eta aitzurra.

Xalbador:

Segarekin eta aitzurrarekin lan egiten ginueno, zorrik ez ginuen behon ta osasuna ere sano, naikoa esana dautzut bainan hau ere entzun orzino, dirua gastatzen aisago da metara biltzea baino.

Mattin:


Burua gogortu zaio aitari orai semiak sinesteko, nik beti haxe erraten diot hoiak gogotik uzteko, azkenian haxe erran behar diot hobeki konprenitzeko, hau beti pobre biziko dela gero aberats hiltzeko.

ANEXA

Españian barna ibili ondoren (Barcelonan, Madriden, Cuencan...) Irunen egin du bere agerraldia ANEXAK. Abuztuaren 15ean eta 16ean, berriz, Donostiako Trinidad Plazaan egingo du.

Aurrerapen aundiak egin dituzte gazte dantzariak "Ballet" berrian: euskal estetikari, musikan, dantzan, olerkian... Baina oraindik gehiago eskatzen diegu. Munduko artera zabaldu aurretik bertakoa gehiago errotu behar dutela uste dugu. Euskal Erriari gehiago eman behar diotela uste dugu.

Baina gazte talde bizi onek gure laguntza merezi du kultura errikoien alde lan egin dezan.



«Anexa»koek lanean

URTEBETETZEA

San Inazio egunez egin zen Motrikoko eliz nagusian Andoni Andonegi apaiz zenaren alde meza.

Bi urte dira il zela eta oraindik ez da ahaztu jendea ez Motrikum eta ez Getarian.

Izan ere lan asko egindako apaiz euskaltzale zintzoa izan genuen Andoni Andonegi. G. E.

BI DEMA

Jokatuko dira Abuztuaren lauan eta bostean.

Lauan, larunbatez, Aiako probalekuan, gaueko amarretan.

Orioko Oliden eta Usarbek jokatuko dute elkarren aurka, "Taloa" izeneko arriarekin.

Pixua: bi mila eta larehun kilo. Olidenen itzaia: Aiako "Txikia" anaiak.

Usarbereren itzaia: Aiako Arruti eta Azpeitiko Bentatxo.

Lau mila duro eskuratuko ditu irabazleak.

Bostean, igandez, arratsaldeko bostetan, behia idiaren aurka Azkoitiko probalekuan.

Migel Uzkudunek "Kaxero"ren behia eramango du plazara. Joxe Marik, berriz, Goikoetxea baserriko idia.

"Sanders" deritzan arriarekin jokatuko dute. Itzai bana alde bakoitzetik.

Pixua: bi mila eta ehun kilo. Sei mila duro jasoko ditu irabazleak.

BOLARIAK

Zubietan jokatuko zuten Santio egunez Yoko-Garbi elkarteak eraturik. Ez zen eguraldi ona baina alaz guztiz ere berrogeita hamarren batek jokatuko zuten.

- 1) Elurtxoriko Fernando Galarraga 35 brillekin.
- 2) Aieteko Manuel Matxain 34 brillekin.
- 3) Elurtxoriko Klaudio Esnaola 33 brillekin.
- 4) Urrietako Joxe Lizaso 32 brillekin.
- 5) Hernaniko Joxe Maria Usabiaga 31 brillekin.
- 6) Hernaniko Alejandro Usabiaga 30 brillekin.
- 7) Ategorrietako Joxe Mari Etxeste 30 brillekin.

MUTIOZABAL



Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK




Banan baneko azikai Ongarri ta abonoak Belar Zuloak Erosi edo berritzeko diru aurreratzea Baserri, lur-tresnak ta abar Torelavega'ko Perira joan etorriak

Baserriaren alde

.....

baserriar-entzatzozketa

PUBLIVASC



SARIAK


lenengo saria

LAND-ROVER, berebilla edozein bidetarako, neurritz, luzeena, 62 zaldiduna, diesel-motorra, metalzko zapaia ta 900 kgs. eraman ditzakena.

bigarren saria

BIURKOR - TRAKTOREA: 18 zaldiduna. Goldeak, irautilleak eta erakartzegirak, osatzen dute traktorea.

* diru epea: dagonilla'ren 14 arte



Donosti-Aurrerki-Kutxa

.....



YOGUR

GURELESA

GOGOZKOENA



Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA


ERRETERI

bazkari onaren zanpagarria eta txarraren estalgarria

LA CASA DEL CAFE

Juan Iriando

San Marzial, 19 - Urrut. 413801 Donostia



LOTARAKO-GELAK
hilean 750 pezetarekin
AMUEBLADORA
COMERCIAL HISPANIA

lorik egin gabe dago...
...zuk lo egin dezazun.

Moraza, 3 eta 14-San Marzial, 12
DONOSTIA IRUN
askoz merkeago eskura ordainduz
GARRAIOA DEBALDE PROBINTZI BARRUAN

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA

MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGI
Zatoz gugana anuntzio honekin eta KANARIAS-en baino merkeago erosiko duzu zure erlojua

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI

TRANSPORTES

azkar


ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.

Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.

Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - **DONOSTIA**
Telefonoak: 450313 eta 459723

Aptdo. 1381
Aptde. 1381



pezeta baiño geiago, saritan

lenengo saria 1.000.000 bat pezeta/bigarren saria 2500.000 pezeta eta 100.000 bana pezetako 4 sari

edozein libretetan sartzen diran milla pezeta berri bakoitzeko zenbaki txartela izango dezu eta libretan dauz-kazun 5 milla pezetakorik aiña zenbaki dagozkizu gaiñera

* diru epea: dagonilla'ren 14 arte



Donosti - Aurrerki - Kuitxa

PUBLICIDAD

Gasteizko ikastola

Gasteizko Ikastolak liburuxka bat argitaratu du aurren guraso eta beste euskaltzalei ikastolako gorabeheren berri eman nahiz. Azalez eta mamiz benetan liburuxka apain eta interesgarria. Dena euskeraz eta erderaz, Gasteizko ikastola bati gaurkoz dagokionez. Behar bada, dena osoago izateko, euskal lanetan inprentako oker batzuk zuzendu zitezkeen eta izenburuak erderaz bakarrik jarri bearrean bitara eman ere bai.

Ikusten da liburuxka honen egileen lehen asmoa ikastolaren berri ematea izan dela. Horregatik iru artikulutan ikastolaren historia edo kondaira aztertzen dute: ikastolaren lehena, orainaldia eta geroa. Artikulu hoietan jasotako datoak argiak dira. Orain amar urte sortu zen ikastola eta geroztik aurrera eta geraka doa ritmorik galdu gabe. Lau urtez Izaskun Arrue andereñoaren etxea izan zen ikastola. Gero Avda. Estibaliz-en txalet bat erosi zen hortarako, eta urrena beste bi.

Ikasle eta andereñoi buruz hona hemen dato batzuk:

1963-64 urtetan 15 ikasle eta Izaskun Arrue andereño bakarra.
1967-68 urtetan 85 ikasle eta 3 andereño.
1969-70 urtetan 245 ikasle eta 8 andereño.
1972-73 urtetan 496 ikasle eta 15 andereño.
1973-74 urtetan 576 ikasle izango dira eta 17 andereño.

Aurten ikastolak erabaki sendo eta txalogarri bat artu du. Aurren gurasoek Irakaskintzaren kooperatiba edo elkarte bat sortu berria dute ikastola berri baten asmoa aurrera ateratzeko. Hortarako 20.000 m.²ko lurra erosi dituzte Gasteiztik kanpora, baina gertu, Lasarte errian, eta ikastola berriaren planoak egin ere bai, 1.000 ikasleentzat leku izango duena, 14 urte arteko aur eta gaztetxoentzat oinarritzko ezibide osoa (E.G.B. delakoa) emateko asmoz. Ikastola berriari buruz asmo eta plan ugari baduzu liburuxka hontan. Beste zerbait ere bai, 1972-73 ikastaroan izan diren 15 aur talderen foto eta izenak argitara eman dituzte. Oroigarri ederra aur, guraso eta andereñoentzat.

Beste artigulu labur batean euskerari eta Arabako euskal giroari buruz zenbait gogoeta eta argibide ematen dira. Hor esaten da, adibidez:

"Euskalerrriak, munduko Herrien artean Herri berezi bat denez, badu hizkuntza berezi bat eta kultura bat, badu izakera bat eta nortasun bat. Araba eus-

kal herrialde bat da eta horregatik Gasteizko guraso euskaldunok haurrei gure arbasoen hizkuntza, euskera maitea, erakutsi nahi diegu ikastolan, eta euskerarekin batean gure euskal kultura osoa eta gure Herriarenganako maitasuna".

Arabak izan ditu euskaltzale bizkorak eta hoiien artean aita Olabide eta Jose Pablo Ulibarri. Honek dira itz aipagarri eta argi hauek: "euskaldunari beti euskeraz". Euskaltzale hoiien bidetik jarraitu nahi dute gaur Gasteizko guraso euskaldunek. Horregatik, "ikastola on bat antolatzen dihardugu gure haurrek euskera ikas dezaten eta euskal giroan hazi eta hezi ditezten. Uste dugu ezer oberik ez dezakegula egin gure haurren eta Herriaren onerako".

Ondoren beste artigulu bat pedagogiari buruz, edo obeto esan, ikastolako arduradunek duten izpirituari buruz. Izpiritu eta ekinaldi hori lau bereizgarri hauen bidez adieraz daiteke:

—Denok garela gure taldeko atal bakoitzaren arduradun.

—Egiazko lan talde bat antolatzea, guraso eta andereñoen osatua.

—Darabilzkigun pedagogi teknika eta bideak etengabe egokitzea.

—Gasteizko aurren egoera eta giro berezia.

Liburuxka hau irakurriko duenak argi ikusiko du Gasteizko ikastola aurrera doala euskal kulturagintza bidetan, eta aurrera urrats ermoak emanez. Euskalerrriko ikastolen mugimenduan badu zer esanik Gasteizkoak ere.

Azkenik, dato jakingarri batzuk eman nahi ditut ikastolako aurren izenetaz. Liburuxkaren erdiko orrietan agertzen denez, aurtengo 496 ikasleentatik 229 aurrek euskal izena dute. Izen erabilienak hauek dituzte: Aitor (27 aldiz), Idoia (17), Xabier (17), Arantxazu (14), Itziar (14), Estibaliz (12), Iñigo (12), Ion (10), Amaya (9), Izaskun (7), Mikel (6), Ainhoa (6), Iker (5), Asier (5), Begoña (4), Edurne (4), Inaki (4), Zuriñe (3), Gorka (3), Igone (3), Nerea (3). Eta bitan agertzen diren izen batzuk: Zigor, Aitziber, Aintzane, Gotzon, Ibon, Joseba, Leire... Eta behin: Arrate, Dorleta, Eguzkine, Endika, Gaizka, Irune, Iratxe, Irrintzi, Irantzu, Lorea, Maite, Nagore, Obeko, Uai, Iara, Zorione... Euskal izen hoietan zenbait Euskal Izendegian (1972) ez dira ageri, esaterako: Eguzkine, Endika, Irrintzi, Obeko, Zorione...

I. BAZTARRIKAK

GASTEIZ



EUSKERA, IKURRIN

Azkeneko urte hauetan sartu da Euskalerrriaren kanpoko alderdikeri ugari; danak, era batera edo bestera munduaren aurrean geure burua ondatu egiten du. Mundu horrek, izan ere, lehenago, beti bat eginik, enbor sendo bat osatuz ezagutzen ginuen: EUSKALERRIA.

Alderdikeri hauen artean badago bat oso berezia: gure hizkera euskerarengan sortu dena.

Ezkerrekoek beren iraultza-bide eta alda beharren ikurrin bezala hartu dute. Eskuindarrek berriz, beren joerak fonkatu egiten dituzte euskera barnean. Baita erdikoek ere, beren kinka zailean, euskera jartzén dute ikurrin. Eta denen artean sarturik, hortxe bizi dira Euskaltzaindia, euskal liburu eta aldizkariak, herria eta bere euskalkiak eta «h» izkia (beste ikurriña). Ez gutxiago eta ez gehiago.

Badira goiko odeietatik guri begira daudenak. Azaletik otso hauek negar egiten dute baiñan barrutik pozez beterik dabilte, auskalduntasuna galbidean jartzeko modua hemen daukagula ikusten baitute.

Bai, berak badakite euskal hizkeran datzala Euskalerrriaren nortasuna, gure ohitura eta bizimoduak, bere berezitasun osoa.

Gauzak horrela, euskera galtzen bada gure herri hau irentsirik gertuko litzake. Aldameneko herriek, gainera, guk baino tresna hobeagoak dituzte hizkuntza-borroka hontan: telebista dela, irratia eta egunkariak direla, aldizkariak direla. Hauek eguneroko ordu guztietan, hileko egun guztietan eta urteko hamabi hila beteetan gure etxeetako txoko guztietan sartzen dira eta arian arian euskerari kalte izugarria egiten diote. Joe-rak, hotsak, hitzak.

Ordua dela deritzait, ikurriñak alde batera uzteko. Beranduegi dedin baiño lehen, denok batu beharra daukagu, gure euskera maitea aurrera eramateko. Hori eginez gero geure burua ere aurrera aterako genuke.

Euskaldun artean betiko leloa eta tema hau behar luke: EUSKERAZ EGIN. Entzun dedilla leku guztietan, hobeto ala oker, erago, bainan entzun dedilla!

Idazten berriz, «H»-z nahi duenak hala egin dezala, gainontzekoak jantziak urratzeke.

Ahal degun neurrian eutsi eta zabaldu behar ditugu euskal aldizkari eta liburuak. Lagun dezaiegun gure ikastoleri ere.

Alde batera ikurriñak! Utz dezaiegun gure euskerari bere argi dizdiratsua zabaltzen. Gure hizkuntzak egingo du hobe gure burua.

ELEDER


TEODORO AGIRRE'ren ONDORNGOAK

AROSATEGIA — ERREDIZAK — SINTASOL

Kutxillera, 54

Urrutizkiña: 22 18 44

— GASTEIZ —



ornitze

INDUSTRIA ETA ETXEGINTZAREN SERBITZUAN

S. Prudencio, 27

Urrutizkiñak: 217274 - 233512

— GASTEIZ —

G A S T E I Z

Alberdi

SAGAR-OPIL — BONBOIAK — PATTAR-ONTZIAK — ETA GAZTEIZKO GAUZA BEREZIAK

San Prudenzio, 27

Urrutizkiña: 21 16 99

Postas, 26

Urrutizkiña: 21 18 83

— G A S T E I Z —

ESMALTACIONES SAN IGNACIO, S. A.

Lantegia: Olarizu - Gazteiz

Urrutizkiña: 21 33 00

Telex. 35524 Essan-E

- BURNIZKO, ESMALTZEKO ETA ALUMINIOZKO SUKALDEKO TRESNERI LANTEGIAK
- KARROZERIGINTZA
- BUTANO BONBONAK
- BAÑU ETA SERBITZU TRESNERIAK

— G A S T E I Z —

BAR RESTAURANTE

N A R O K I

BEREZIAK ERREKIETAN — ETA EUSKAL SUKALDEAN

Carlos VII, 24-behea

Urrutizkiñak: 230000 - 231540

— G A S T E I Z —

SANCHIZ BUENO, S. A.

GAINEN BUKAERAK

MADRID — BARCELONA — VALENCIA — EIBAR — SEVILLA

— G A S T E I Z —

m a d i n a b e i t i a

ERREDIZAK — APAINKETA — TAPIZTEGIAK

Ortiz de Zarate, 3

Carlos VII, 35

Urrutizkiñak: 212362 - 213729

— G A S T E I Z —

T X I M I S T

es mi nombre de pila

ARBOLAK GASTEIZKO KALEETAN

GASTEIZ

Gasteizko kaleetan zehar ibilaldi bat egiten badugu, gauza batez konturatuko gara. Garai bateko jendea ere Naturaren gauza atsegin eta ederrez arduratzen zela; "mass media" gutxiagoz baliatuz, beharbada, baina gu bezain egiazki kezkatzen zirela, gizonak hirietan inguru egokia izan zezan. Gu baino egiazkiago askotan. Honetaz konturatzeko nahikoa zaigu Gasteizko kaleetako arbolak aztertzea.


Gasteizko erditik hegoalderuntz abiatzen bagara, trenbidetik hegoalderago joanaz, orain mende erdi bat eginiko hirigintza edo urbanizazio bat ikus eta, azalez behintzat, azter dezakegu. Hor hazten dira ederki platanoak, alboan dagoen kuartelen deusezkeria ederretiaz. Haruntzago, Istituto aurrean, ezkiek Europako geografiko eta kultural ahaidetasuna dakarkigute burura; Gasteizko "Unter den Linden" hortxe dago, ezkiek itzalpean (ezki=linde, ingelesez eta alemanez). Indi-gaztainek berde nabarrezko arku bat eskaintzen diete patxadaz ibiltzeko irteten diren pertsoneri Frantzisko Bitoriaren ibil-tokian. Azkarrek, giputzen astigarrek, mugatzen dute Hiri Gardeneko amaiera hegoaldeetik.

Esandako arbolak ederrak, berde bizikoak, sendoak, zabalak dira. Orduko hirigintzan erabiltzen zirenak. Eta gaurko egunean erabiltzen ote dira arbola hauek kale berrietan egiten diren landaketetan? Platanoak bai, baina sartu berri dira gehiegitan, ene gustoz, arkaziak, aligustreak, katalpak eta negundoak. Arbola hauek besteak baino kolore motelagoak dira, ergelagoak. Daukaten abantail teoriko bakarra txikitasuna da eta honela edo zein pisu edo bizitzatik kalea ikus daiteke. Zertarako?


Poluzioari begiratuaz ez dago konparaketarik. Arbola ederrenak izaten dira galbae egokienak, bai haiza arazteko, bai eta hotsen eraso tipiatogtzeko ere.

Edertasun eta atsegintasunari begiratuaz gauza bat esango dizuet. Generalisimo eta Basoa kaleetan foto batzuk egin nituen bainan ez ditut bialdu, Gasteizko jaietan Gasteiz eder dadin, esandako kaleetan dagoen katalpa eta negundo meharrek Gasteizko itxura trakets ez dezaten.



I. RUIZ URRESTARAZU



Indi-gaztainak, Frantsisko Bitoria ibiltokian



Platanoak, Urkijo kalean



Ezkiak, Istituto aldean



Azkarrek, Araba kalean



GASTEIZ

Distiplas


SINTASOL - CEFLEX - SINTAMUR - LAMICHAPA
Zurezko Parquets - Formica

Independencia, 22
Cercas Bajas, 4

Urrutizkiña: 21 60 74
Urrutizkiñak: 217642 - 212705

— GASTEIZ —

ALCOAGA




Era guztietako Paper Margodunak
IRUINEAN, ARRASATEN, BURGOSEN; DONOSTIAN
ZARAGOZAN ETA MADRIDEN SALTZEN DA
— GASTEIZ —

Industrias

B. MAIZTEGUI


BURNITEGI ETA ELEKTRIKAREKIKOAK

DOUBLANG MARGOLARIA



Urrutizkiña: 22 48 91

— GASTEIZ —



TERMOKAL

FAGOR-ren banatzailea — Sukaldeko errediza bereziak

Plaza Alfonso XI, 2

Urrutizkiña: 24 55 27

— GASTEIZ —

ULIA MODAK

Diputazio Forala, 17

— GASTEIZ —

Indagui, s. a.

AGUINAGALDE INDUSTRIAK, S. A.

Pitxitegi eta Damaskintzarako ugalen lantegia. Galbanoteknia,
Nikel, zillar, urre eta abarretarako langintzak.
Telegr. Zuzenb. «Indegui»

Apart. 161

Urrutizkiña: 22 28 12

— GASTEIZ —



Comercial Alberdi, S. A.

Medibiarzte - Armentia

- GASTEIZ -

VINOS ETXEA

1875-en sortua
EUNGITZAK — BERRIKIAK — OIALAK

LEHENENGOA AUR SAILEAN
Diputazio Forala, 2
Birjiña Zuriaren Emperantza, 10
GASTEIZ



IGNAZIO BAJO
ARABAKO ZABALTZAILEA

Division Azul, 4

— GASTEIZ —

Urrutizkiñak: 212231 - 211719

Aramaio, arabako baztertxo bat

Aramaiotar bati arabarra al dan galdegiten badeutsazu, ez deutsu baietarik erantzungo. Izan ere, aramaiotarrak ez du bere burua arabartzat hartzen. Ezta giputz nahiz bizkaitar ere. Bera ez da ez giputz, ez bizkaitar, ezta arabar. Aramaiotar besterik ez da. Nahi baduzu, baita euskaldun ere. Baina inungo probintzia baten lokarriei lotuteke. Edozein aramaiotari entzun deikiozu: «Arabaruntz noia». Eta «Nola Arabaruntz?» galdegiten badeutsazu, «Bai ba, Araba Billerlen (Legution) hasten da» erantzungo deutsu.

Nundik datorkie aramaiotarrei pentsakera hau? Zer dela eta dira hain azke-zale eta bere jabe?

Galdera asko egin izan ohi jat, bereizitasun honi buruz. Baita gasteiztar zintzo bat baino gehiago arpegi ilunez jarri ere, gure buru jabetza dela ta. Nik neuk ez deutsat inoiz xehetasun honi jaramon larregirik egin. Badago munduan zehar garrantzi haundiagoko gauzarik. Baina behin baino sarriago ekarri izan deust zerbait pentsamentura: aramaiotarren pentsakera hau benetan al da bereizitasun bat? Gauza hau Aramaion bakarrik gertatzen ote da? Ez al da gauza berbera Euskal Herriko beste hainbat bazterretan jazotzen?

Aramaiotarrak, Kondaira irakasle dela, badauka zenbait arrazoi arabar osoki ez sentitzeko. Baina nik uste sentimendu honen sustraiak sakonago oinarritzen dirala. Nere ustez euskaldunak, herritar huts, soil eta saillekoak batez ere, ez du inoiz «probintzia» idearik bereko izan. Aramaiotarraren antzera, bere herririk eta Euskal Herri osoaren artean ez du inoiz beste muga nahiz erki-zaletasunik ohitu. Haugaitik batipat Aramaioko semeak ez du bere burua aramaiotar eta euskaldun besterik sentitzen.

Ikusgarria da bazter honen edertasuna. Esaerak dionez, Arabako Suiza omen da Aramaio. Nik gehiagorik esango neuke; gure haran eder honek ez dauka zertan inorekin parean jarri, bere apaintasuna erakusteko. Inun izan daitezkeen alderdi ederrenak, bertan aurki daitezke. Ikaragarritzko haitz tontorrak, hodeiak ikutzen. Zoragarritzko zingira eta ur-batuak, ezetasunez basoak biguntzen. Mendi aldapetak, landa orlegiz eta zelai mardulez inguratutako baserriak jantziak. Nurnahi piñudi eta pagadien margoak, ikuskariaren edertasunari azken ikutua emonaz.

Bederatzi elizalde osatzen dute Aramaio. Elizalde bakoitzak bizpahiru hauzotan batzen ditu bere basetxeak. Denen buru, Ibarra edo «Kalea». Beste elizaldearen izenak: Untzila, Barajuen, Azkoaga, Uribarri, Aixola, Etxaguen, Gantzaga eta azkenez, haitzaz bestalde, Olaeta. Ibarako etxe gehienak kale inguruan pilatuta eraikiak dagoz; baina Aramaioko baserri guztiak haran osoko aldapetan banatuta ikusiko dituzu; eta hauxe da, hain zuzen, Aramaioaren edertasunik haundienetakoa bat. Ibarak 800 bat lagun izango ditu; Aramaio osoak, 2000 bat. Gure gaztaroan noiznahi sortzen ziran ikusi ezinak kaletar

eta baserriaren artean. Mutiko gauzak erabat. Ez burruka haundirik, noski. Baina beti zerbait. Gaur egun, kultura gehituaz eta herri mugak zabalduaz, xehetasun hauek gairitzen ari dira.

Aramaio luzaroan izan zan kondeherri azkea. Baina XV garren gizaaldaren amaieran, Oinaztar eta Ganboatarren arteko gudaketekin aspertuta, bere buruarentzat hobe izango zala pentsaturik, bake billa Arabara jo zuen, honen zazpi taldeen artean toki bat eskatuz. Ez zan ordea Aramaio guztiz lotu; arrezkeroko Arabaganako lokarriak mehe samarrak izan ohi ditu. Egia esan: aramaiotarrok, nahiz eta Arabaren muga barrutan sartuak aurkitu, ez gara inoiz guztiz arabar sentitu; beti apartekatuz euki dugu geure burua.

Historia aldetik bada oraindik zenbait puntu argitu beharrean. Esate baterako: itxura dagoenez, Bizkaiko Yabegoaren eskualde bat izan omen zan noizbait Aramaio; honela agertzen omen da bertako Artxiboko liburuetan. Bada baita beste dato bat ere oraindik agertzeke: Ibarako eleizako liburuetan, 1707tik 1820rarte, «tierra llana del Señorío de Vizcaya» deitzen da Aramaio; eta hau, 1489 tik Araba izanik. Nola adieraz hitz hauek? Ez al zekiten orduko apaizek Aramaio Araba zanik? Beste arrazoiren bat ote dago?

Azken guda ezker, beste hainbat tokitan bezala, baita Aramaion ere atzerakada haundia egin du euskarak. Gazte jendeen artean batipat. Eskolen erdalduntasuna, ideien zabal-bideak, gurasoen nagitasuna, jabetu behar izan zutenen beldurra... eta beste zenbait iturburu izan daitezke errudun. Dana dala, euskara galduz doa. Ibarren batez ere. Jende nagusiak euskaraz egiten du gehienbat; bai etxean, baita kalean ere. Baina gazte eta haurrek ez; nahiz eta ondo ulertu, ez dute hitzik egiten. Negargarri deritxot etxe azkotan gertatzen danari: gurasoek euskaraz egin eta semeek erdaraz erantzun.

Dirala iruren bat urte, zenbait guraso arazo nontaz jabetu ziran. Euskararen etorrerea aintzakotzat hartu kola bat; «Kili-Kili» ikasketak gertatzen hasi ziran: alfabetatze ezuten. Eta euskaraganako higidura roago. Baina batez ere haur-ikastola bat jasotzea behar beharrezkoa zela ikusi zan. Lege aldetik eragozpen haundiak zirelarik, Elizak hartu zuen bere menpean mugimendu hau. Eta jaiotzen haur-ikastola. Andereño bat arduradun dala, Eleizaren babesean eta herritarren diru laguntzaz irau du gaurdaino ikastola honek.

Gaur egun haize pozgarriagoak dagite Aramaion. Ale honen beste orrialde batean irakur daitezkeenez, Arabako Aldundi Goineka bere gain hartu du Arabako euskal-irakaskintza. Araba osoan. Aramaion bereiziki. Dirala zenbait egun, Manuel Maria Lejarreta, Lendakari jaunak, Aramaioko agintari eta gurasoei dei egin eta ikastola berri baten egintamauk adierazi eutsen. Asmoak ezin obeak dira. Datozen Eguberriarako ikastola etxe berri bat jaso-

ko da. Udalak ezkeintzen du lurra. Aldundi Goienak ordainduko eraikitzea. Beste andereño bat hautatuko omen da. Irakaspen Inspektzioak ordainduko deutse oraingoari eta biei. Aldundiak, bestalde bere gain hartzen du gelditzen dan beste zenbait gastu; haurren joan etorri eta jantokiko gastuak, esate baterako.


Eginkizun hauetan ardura haundia izan dute Arabako Euskaltzainek. Aspaldian aritu omen dira hartu emanetan, bai Arabako aldunekin, baita Aramaioko agintari eta gurasoekin. Denen lanari esker, euskarak etorkizun argi bat itxaron daike Aramaion.

Beste zenbait buru hauste ere badarabilte aramaiotarrek, bere herri kutun hau aurrerapidean ipintzeko asmotan. Gure herriak ez du gizon gartsu ekin-zale azkotzarik emon. Maiz pentsatu izan dut, gure haran inguruan jasotzen diran mendi gailurrek, mugalde estuetan gorderik gaukezala; gure pentsakerak ez duela begikuste zabalik ezagutu; gure sentimenak leiza estu eta mugatuan jaiotzen eta hazi dirala. Haugaitik, behar bada, aramaiotarra ez ohi da ekin-zale oldartsua izan; bai ordea barneko, biotz-bigun eta ertilarri samarra. Haugaitik, behar bada, Aramaio ez da Lenizko herriak bezala hazi eta haunditu. Gaurko jendeek ordea, lehengoek izan ez



zuten amaikoa bide izan dute mundu zabala ezagutzeko; beren pentsakerak ba dituzte begikuste zabalak. Gaurko gazte hauek, munduan zehar dakusaten aurrerapen eta ondasunez jantzi nahi dute bere herri txikia. Lan hortan dihardute. Bakartasun eta biotz-biguntasuna ez omen da gaurko gizadiarentzat asegarri.

SABIN SALABERRI



ARABA OLERKARI

Agirrezabal-dar Andoni.
Gorka Knörr.

ERLOJUA

Aurrez aurre daukat.
Erlojua.
Historiaren
pixu astuna daraman
erloju zaharra.

Tiki-tak,
tiki-tak...

Atzo geratuko
litzakeala
esan zidaten.
Baña ez,
hor dago,
lehen baiño
lerdenago,
hor dago
gauero
niri so...

Tiki-tak,
tiki-tak...

Eta bere irri zabala
ikusten dut;
irri zabal horrek diran,
irri zabal horrek
heriotzaren uean
lagunduko nau.

Tiki-tak,
tiki-tak...

(Gorka Knörr-en
abesti batetik)

ITXOGANA MENDIA

Etzetik ikusten zaitut
sortaldeko aldean.

Etzetik ikusten ditut
zure ondoko guztia
zure inguruko iturriak,
tontorreko gurutzak,
San Bitoren baseliza
edo ermitatxoak.

Bai, Itxogana mendia,
ikuspegi ederrak,
pagodi ta iturriak,
mendi-estalpetxoak,
eta askatasun-tokia
ditugu zure ondoan;
begiak poza hartutzeko,
bero, hotza billatzeko,
osasuna aurkitzeko,
pakean bizi-izateko
ta askatasun osoan.

Agirrezabal-dar Andoni

BEKO ITURRI

Itxogana mendian
da Beko Iturri
pagodien sartuta
ta ezkutaturik.

Pago bateko ondoan
ematen du ura,
ur leiartsu, garbia,
hotz, edangarria.

Bidetik hurbillean
eta itzalpean
ikusten du argia
Beko Iturriak.

Agirrezabal-dar Andoni

MENDIZALEEN BAZKUNA

Gasteizko mendizaleak,
gazteak eta zaharrak,
edo mendigoizaleak
sortu dute bazkuna,
beren nahi, gogai, asmoak,
eta beren txangoak
elkarrekin egiteko,
elkarri erakusteko,
elkarri beti azaltzeko,
elkarregana joateko
nahi, gogai ta asmotan.

Gasteizko mendizaleak,
gazteak edo zaharrak,
andreak eta gizonak,
neskak eta mutilak
elkartu dira bazkunan,
bazkun ezagutuan,
beren nahi, gogai, asmoak,
elkarrekin batean,
ahal-osoan eratzeko,
ahal-sendoen batutzeko,
ahal-ongien egiteko
eta egiz bihurtzeko,
beren bazkun horretan.

«Manuel Iradier» Bazkuna,
guztiz ezagutua,
nahiz Gasteizen, bai kanpoan;
Euskal-Herri osoan.
Gasteizko mendizaleak
ta mendigoizaleak
«Manuel Iradier» Bazkuna
egin dute berena,
mendi-kutxetan jartzeko,
handik hona eramateko,
bere izena zabaltzeko
Euskal-Herrian barna.

Agirrezabal-dar Andoni

Sucesores de Aguirre, S. A.

1.840 urtean sortu zen etxea
ALTZAIRU ETA BURNIKIAK

Gamarra Atea, 30

Urrutizkiñak: 226100-04-08-12-16-50 - 222137 - 222678

— G A S T E I Z —

DOS HERMANAS

Postas, 35

Urrutizkiña: 21.18.52

— G A S T E I Z —

URSSA

ETXEGINTZA ETA INDUSTRIETARAKO
ESTRUKTURAK

Urrutizkiña: 21 65 03

Jauregi Zelaian, 18

G A S T E I Z

Aranzabal, s. a.

Gastela, 14

Urrutizkiña: 22 06 00 (6 ari ditu)

— G A S T E I Z —

I n s i s a

ZOLDAKETA TRESNERIAK — INDUSTRIETAKO MAKINAK
TRESNAK ETA ERRAMIENTAK — NEURKETA GAIK

Telegramak: Insisa
Simon de Anda, 2

Urrutizkiña: 22 28 62 (iru ari)

— G A S T E I Z —

ZARATE ERREDIZAK

Berria Barrua, 65

Urrutizkiñak: 212316 - 217916 - 233499

— G A S T E I Z —

Arabako kanta zaharretaz zerbait

Banuen gogo handia Arabako kanta zaharretaz zerbait idazteko. Batez ere zeharo ezezagunak direlako, eta batek baiño gehiagok Araban euskerazko kanta zaharrik ez dagoela pentsatzen duelako. Zertarako aipa hemen Gipuzkoan kantatu dutanean, eta «Arabako kanta zahar bat kantatuko dut» esan dutanean ikusi ditudan aurpegiak! Zertarako aipa entzun ditudan komentarioak! «Baiñan ba ote da Araban kanta zaharrik? Ia-ia Gaztela den «hortan» ba ote euskaldunik? Ba ote euskal arrastorik?»

Behin baiño gehiagotan mintzatu naiz honetaz. Badakit. Baliteke aspergarri gertatzea. Behar bada nere edo gure aldetikako konplejo bat edo besteren sinale dateke. Baiña jendea lehenetan jarraitzen bada, zer egingo dut ba nik? Zer egingo, gurekiko, arabarrokiko zabarkeria lehen bezala jarraitzen bada? Zer egingo euskal astekarietan «Gasteiz» gabe «Gasteiz» idazten badute? Zer egingo, euskal astekari batean euskeraren muka Legutiano (Villarreal de Alava) dela esaten badute? Zer egingo, Gasteizen euskaldunik ez dagoela esaten badute? Edo eta «badirela» gaur bertan jakin badute? Goizetik eta eguzkia jaunok!

Esanak esan, neure lantto hau arabatar euskaldun berriei eskeiñi nahi diet; bai eta egun hauetan bukatze den euskera-ikastarotik ateratzen direnei (berrogeita hamar urte pasiak dituen bihotz gazteko gizon bat baiño gehiago barru dela), eta gerla osteko urte latzetan gure herria eta euskerarenganako maitasuna bizirik iraun erazi dituzten arabatar gizon-andere agurgarriei. Baiña has nadin.

KANTA ZAHARRAK GAUR

Kanta zaharretaz jardungo dutenez, ezin dut aipatzeke utz gaurregun gure herrian kanta zaharretaz dagoen eztabaida bitxia.

Ez da dudarik; «Euskalerria diferentea da». Ez, agian, Azurmendik eman dituen arrazoiengatik, eman ez duenagatik baiño (Nundikan, bestela, amorrazio guztiak mailla berebean jartzea?).

«Zaharrak eta berriak», nik dakitan, herri guztietan baitira. Euskalerrian kanta zaharretaz eta beste milla gauzatzaz holako eztabaidarik bada, ez da (bakarrik) «problema generacional» delako bat dagoelako, beste «zerbait» ere badagoelako baizik.

Dirudenez, ez da gauzarik debekatzen ez zaigunik: gaurregun, kantaldi batean halako edo holako kanta zahar bat kantatuko dutala esaten badut, berehala hasten dira esamesak. Badirudi kanta zaharri halako zentzu peiorativoren bat ematen zaiola. Badirudi ez dugula deretxorik geure herriko historia kantatzeko; hori baita nolabait gure kanta zahar kantatzea. Eta mundu guztiko kantari herrikoiek hala egiten dute.

Gai honetaz zenbait puntu bedere argitzeak me-reziko luke. Baiñan egia esan denbora luze joko ligu-ke argitzeak, kantagintzari buruz tautik ez dakien jendeari (eta hain errazki mitzaten den jendeari) zerbait explikatzeak, zenbait jenderi kantariak jendea «berotzeko» bakarrik ez direla explikatzeak, euskal musikak, aurrera joango bada, jarraipen edo kontinuidade baten billa joan behar duela explikatzeak, musika herrikoia HEMEN zer den explikatzeak. Jakintsu



asko eta langille gutxi dagoen herri errukarri hontan zerbait explikatzeak.

Gauza hauen azterpena oso gauza luze eta zailla da, nere ustez. Itxadon dut norbaitek egunen batean zerbait idatzi dezala, eta, ahal badu, gure frantsiskoak gure egoera aztertzeke erabilli duena baiño azterbide zientifikoago batez. Eskertzekeoa izango litzake benetan. Bueno, goazen harira.

ARABAKO KANTA LAHARRAK

Arabako kanta zaharrak, egia esan, gutxi dira gaurregun. Eta normala da. Kontu egizue ezen Azkue Araba aldetik ibilli zelarik, euskera arras galduta zegoela gure lurraldeetan, eta gaiñera, kanta asko biltzeke gelditu zirela. Ai, garai hartan magnetofonorik izan balu gure Azkuek; zenbat eta zenbat kanta ez zirakean galduko!

Halaz ere, badugu kanta mordo dextentea; gehienak, Azkueren kantutegian dira. Baiña badira beste batzuk, lantxo hontan aipatuko ditudanak, eta Azkueren kantutegian ez direnak.

Bestaldetik, oraindik badago Araban biltzeke dagoen folklore puska. Eta alde hortatik badago eremu zabala lan egiteko. Denbora libre edo astirik beharko dugu noski. Duela egun batzuk lagun baten bidez enteratu naiz Urrunaga herrian (Gasteiztik hamaika kilometrotara Iparraldetik, gutxi gora behera) bada-goela agure bat edo beste (herri hortan adiñeko guztiak euskaldunak dira) euskerazko kanta eta bertso zahar asko dakizkiena. Harengana jo beharko dugu noski.

Arabako kantak gutxi direla esan dut. Baiña honetaz oharño bi egin nahi nuke:

1) Azkueren kantutegian Olaeta, Aramaiona eta Legutiano herrietako kantak dira bildu. Ziur nago Arabako beste zenbait herritan Azkuek zerbait bildu zuela. Nun dira? Nun dira Azkuek bildu zituen kanta «berdeak» (Azkuek berak esaten zuenez, «subidas de tono»)? Baliteke kanta horien artean Arabako kantaren bat arkitzea. Bestaldetik, Azkuek berak («Clasificación de nuestras canciones populares», «Cancionero Popular Vasco, 54 orrialdean) honela dio: «Además de las que aquí sean publicadas quedarán muchas otras, por su poco valor, inéditas. Quien, sin embargo quisiera consultarlas las tendrá en la Biblioteca de la Academia de lengua vasca». Ikusi beharko da noski ea «inédita» horien artean Arabako kanta zaharrik dagoenetz.


2) Azkuek, behin baiño gehiagotan, kanta bat leku batean ez baiña leku batzutan aditzen zuenean, zer egiten zuen? Jakiña, kantutegian agertuko da leku bateko izan bailitzan, nahiz eta leku batzutan aditua izan. Exenplu gisa, hara Azkuek (ob. cit., 684 orrialdean) diona: «Otzarearen faltaz, dijo la cantora, por otzararik ezarren, que dijo la de Legutiano (Villarreal)... cantando esta misma pieza». Beraz «Garagartzan gagoz», Otxandion (Azkuek Otxandiano) bildutako kanta hori (kanta honi dagokio egin dutan aitamén hori), nungoa da?

Bestalde baliteke Otxandion bildutako zenbait kanta Olaetakoak edo izatea. Eta Gatzagan bildutako zenbait kanta Legutianoakoak izatea. Zailla baita gaiñera batzutan Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko mugak markatzen. Alde batetik «Oída en Otxandiano de X.X.» esaerak ez digu batere argitzen «comunicante» delakoaren jatorria (eta batzutan kantaren beraren jatorria ezta ere, lehen ikusi dugunez). Eta bestalde, muga horiek markagaitz izaki, kanta batzuk, esate baterako, Gatzagakoak gabe, Maringoak liriteke, eta Maringo baserri batzuk Arabakoak dira.

Esanak esan, Azkueren kantutegian diren Arabako kanta zaharren zerrenda ematen dizuet. Azkuek berak erabiltzen duen (klasifikazio egitean) deitura bera erabiltzen dut, gero kantutegian aurkitzeko errazago izan dakizuen.

AZKUEREN KANTUTEGIAN DIREN ARABAKO KANTA ZAHARREN ZERRENDA

| Amorosas-Amodiozkoak | Orrialdea | Zer herritan bildua |
|----------------------|-----------|---------------------|
| Begira nago | 76 | Legutiano |



| Báguicas | | |
|--|------|-----------|
| Drigilin Dron | 165 | Aramaiona |
| Cuneras-Seaska kantak | | |
| Lotxo | 241 | Aramaiona |
| Danzas (habladas) | | |
| Año Bilbon | 296 | Olaeta |
| Baltzerana izan arren | 298 | Olaeta |
| Txiririri | 357 | Olaeta |
| Danzas (Sin palabras) | | |
| Marcha primera para dulzaina | 366 | Olaeta |
| Marcha segunda para dulzaina | 367 | Olaeta |
| Marcha tercera para dulzaina | 367 | Olaeta |
| Marcha de final de aurrezku | 392 | Olaeta |
| Endechas y Elegías | | |
| Bart amarretan | 486 | Olaeta |
| Infantiles-Haur kantak | | |
| Aita, aita | 606 | Legutiano |
| Txintxin txirikitin | 640 | Aramaiona |
| Festivas | | |
| Ai Angela | 654 | Olaeta |
| Garagartzan gagoz | 683 | Legutiano |
| Jose Mondragonek | 702 | Aramaiona |
| De Oficio | | |
| Labiru logale | 824 | Aramaiona |
| Romances y Cuentos | | |
| Atzo etorri jataz | 957 | Aramaiona |
| Goazen Sai Juanera | 973 | Legutiano |
| Izar ederrak | 991 | Aramaiona |
| Txoritxua sasian | 1050 | Legutiano |
| De Ronda-Erondakoak | | |
| Abendu Santu onetan | 1068 | Legutiano |
| Jesus Zeure Arbolean | 1079 | Olaeta |
| Bedinka gerta dedila | 1080 | Olaeta |
| Belen, Belen | 1081 | Legutiano |
| Tomas abade dago | 1134 | Legutiano |
| Honeraño Azkueren kantutegian direnak. | | |

—oOo—

KANTA HAUETAZ ADIKIZUN BATZUK

Kanta hauek, gehienak, oso motzak dira, baiñan jeneralki oso doñu atsegiñekoak. Bestalde, pena da Azkuek kanta batzuren ahapaldi gehiago ezin biltzea.

Arabako kanta zaharretaz zerbait

gutianokoa. Oso polita. Hona hemen hitzak:

Gure ortuban sagarra loran
Donianeko eldurik,
aren azpijan uso bi dantzan
ederrik eta galantik.

Eskriban zarrak iru alaba
irurak sedaz jantzirik;
iruretatik ederrenari
banentso palabraturik.

Soñeko eder bat eingo neuskio
urrez ta barraz beterik.
«Eskerrik asko galant galanta
eztot neuk gona biarrik».

«Zazpi arkako utxea daukat
neuk estrenatu bagarik,
zortzigarrena gorderik daukat
urrez ta barraz beterik».

—Hirugarrena, «Agilando», tituluak berak erakusten digunez, haurrek Eguberritan dirurik eskatzeko kantatzen zuten kanta bat. Olaetakoa da.

Agilando erresilando
aquí se vive un caballero
dris drask gartairas
mataremos gallinas dose compañía
por la Birgina Maria.
Agilando todo montaña
zazpi nogain da zortzi gaztaña,
aren gainean lau sagarrak daukat
altxoa zabal zabal.

—Eta orain, fotokopia horietan Azkueren kantutegian agertzen ez diren kanta horiekin bukatzeko, laugarrena aldatuko dizuet.

Baña kurioa da oso kanta honekin gertatu dena. Azkuek «Encartaciones» delako Bizkaiko lurraldeetan hiru sehaska-kanta bildu zuen, erderaz. Eta haietako bat «Este niño tiene sueño» izeneko kanta. Azkuek hiru kanta haiek hartu eta euskeratu omen zituen. Beraz, «Este niño tiene sueño», «Aurrak logale dalako» bihurtu zen. Eta hara non arkitzen dugun Olaeta herrian sehaska-kanta bat hitz horiekin eta beste doiñu batekin. Ikus bestela «Cancionero Popular Vasco, canciones cuneras, 225 orrialdean, eta gonparatu nik daukaten beste honekin:

Aurrak logale dalako
lotxo nai luñe egin;
begi bat ertsia du ta
bestea zabal ezin.
Oba, oba...

Gaiñetikan, Olaetako sehaska-kanta honen doiñua hunkigarria da.

DON JOSE IÑIGO IRIGOYENEK BILDUAK

Irigoyenek, lehen esan dutan bezala, hiru kanta eta erromeri-kopla bi dakarzi bere «Folklore Alavés» liburuan. Irigoyenek Aramaionan bildu zituen aipaturiko kantak.

Lehera, «Atxie Mutxie». Haurren jolas-kanta da. Bizkaian, Lekeitio eta Ermuan «Atxia Mutxia» kantatzen zen (Ikus Azkue, ob. cit., 219-220 orrialdean); hitzak oso antzekoak dira. Orain ez dut erarik izan Aramaionako versioaren doiñua jakiteko. Hona hemen hitzak (Lekeitio eta Aramaionakoak):

Lekeitiokoa:

Atxia motxia pirolipan
nire semea errotan;
errotara ninola
topatu neban asto bat.
Kendu neutsan buztan bat,
ipini neutsan beste bat,
errota txikinak klin klan.
Din dan, nor il da?
Peru zapataria.

Aramaionakoa:

Atxie mutxie piropilan
nire semie errotan;
errota txikie, klin, klan.
Bein jua nintzan basora;
topau neban erbie,
jaurti nutzen eskerreko begigorrie
Gorri, gorri, gorri. gorrie.
Lodio, piti, konkordo,
gauzon zalie neu nago;
atzera begire dauenendako
gauzon gitxi dago.

Irigoyen, «Folklore Alavés, 140 orr.)

Liburu berean ikus dezakegu Sanjueñetako kanta bat eta sehaska-kanta bat:

San Juan, San Juan;
Arrautza bi kolkuan,
beste bi altsuan
Artuek eta gariek gorde (bis)
Sorgiñik ez, lapurrik ez,
badagoz be erre beitez.

(Ob. cit., 144 orr.)

Nere maitie lo ta lo
zeuk orain eta neuk gero;
zeuk gurozu orduen baten
biok egingo dogu lo ta lo.

(Ob. cit., 145 orr.)

Eta bukatzeko, erromeri kantak edo koplak:

Maritxu, maiñendoko
Maritxuren ama,
berbak gogorak baña
borondate ona.

Urkiolara noa
Domuruz Santuruz;
Lenengo preguntia:
Nun da Mari Jesús?

(Ob. cit., 145 orrialdean)

Gaurkoz aski dela uste dut. Baiñan ez nuke amaitu nahi guretzako zein garrantzitsuak diren kanta zaharrak esan barik. Arabako kanta zaharrak noski, Arabako berpizkundean, oso garrantzi handikoak dira. Baiñan baita gaiñontzekoak ere; zenbat eta zenbat gauza ikas daitekeen gure kanta zaharretan! Eta, nere aldetikan, nola ahaztu kanta pilla bat ezagutzeak egin zidan laguntza ederra euskera ikasten hasten nintzelarik!

Eta gure kanta zaharrak ikasten, aztertzen, estimatzen, maitatzen, geurea dena maitatzen ikas dezagun. Eta kanta dezagun. Kanta dezagun hilzorian dagoen gure Ama Lur-rak emana. Eta zuen baimenarekin, buka dezadan Luis Gonzalez de Etxebarri (Aizkibel-dar Bingen) arabar poetaren bertso batez:

Astiz! I[-]zorian eguan amea;
semiak maitero mosu bat eiz eutsan,
mosuaz bizitza barriz emon eutsan,
ta biok betiko zoruntsu dira.

GORKA KNÖRR

Esate baterako «Begira nago» amodiozko kantuan ahapaldi bakarria bildu zuen:

Begira nago, begira,
or goiko bide barrira,
noiz etorriko ete dan
maitea neure errira.

Gauza bera «Bart amarretan» endecha ederrean:

Bart amarretan dontzella nintzan,
amaiketako senarra,
gaueko amabi santuetako
gelditu nintzan bakarria.
Sentimentua, sentimentua,
andiagoa penea;
ordubeteko senarragaitik
alargun izan bearra!

Gasteizen Euskaltzaindiako billera zela-ta, zerbait esan zidan Joan San Martinek kanta honetaz. Orain ez naiz oroitzen, baiñan Baxenabarrean «Bart amarretan» kantaren musika berberekin beste kanta bat bazegoela edo holako zerbait zela uste dut. Nik esan nion (Estibalitzko bazkal-ostean) Azkueren kantutegian ikusi nuena; hona Azkuek esaten duena, variantearen hitzak eta doiñua kopiatu baiñan lehen: «En Guipúzcoa se canta mucho esta melodía con el ritmo algo alterado, por lo general, y con letra Loreak udan, de Vilinch».

Honez gero, Azkuek variantea kopiatzen du. Variantea 6/8 konpasean dago; «Bart amarretan, aldiz, 5/8 konpasean. Doiñua zerbait desbardiña da pasarte batzutan.

Beste zenbait gauza esan legike kanta hauetaz, baiñan, oker ez banago «Arabako kanta zaharretaz zerbait» da artikulu honen izenburua.

AZKUEREN KANTUTEGIAN EZ DIRENAK

Kantutegian ez direnak eta beste iturritatik bildu ahal izan ditudanak ere (Kantu epikoak aparte utzita) gutxi dira: zazpi eta bi erromeri-kopla. Zazpi haietatik hiru eta erromeri-koplak Don Jose Iñigo Irigoyen apaizak idatzitako «Folklore Alavés» liburutik artu ditut. Beste lau kanta horiek orain esango dizuet nola eskuratu nituen.

Nere anaia Hendrikek, duela zenbait hillabete, fotokopia batzuk emon zizkidan, oraindik berari nork emon zion ez dakitala. Dena den, fotokopia horietan Arabako hamazazpi kanta zahar agertzen ziren. Haie-tatik hamairu Azkueren kantutegian ziren. Ez ordea gaiñontzekoak. Kanta horiek hanako hauek dira:

—«Axurixak ez ei dauko», «báquica» tankerakoa eta Olaetakoa. Itzak aldatuko dizkizuet:

Axurijak ez ei dauko
erre бага gustorik;
emen dauku Praisku Manu
despentzie zutunik.
la, la!
Burduntzijan erre daigun saiaskija,
imini xu maia pronto
sabelak beteteko ondo.

—Bigarrena, «Gure ortuban», amodiozko kanta, Le-

